

Euskaltzaindiaren Mintzola deialdia (2024)

euskaraz egiten den ahozko jardunari buruzko
ikerketa-lanak saritzeko

Euskaltzaindiak, Mintzola proiektuaren bidez, euskaraz egiten den ahozko jardunari buruzko hiru ikerketa-lan saritzeko deialdia argitaratu zuen martxoan. Ikertzaile gaztea edo hasiberria doktorego-tesiraino eramango duen ibilbidean, aurreko erabakiak eta urratsak ere garrantzitsuak dira, eta hain zuzen bide horretan laguntzea eta, unibertsitateko edozein jakintza-alorretatik abiatuta, ondorengo zazpi eremuak oinarrian direla, euskaraz egiten den ahozko jarduna ikergai gisa sustatzea da deialdi honen helburua. Ikergaiak:

1. Eguneroko hizkera informaldaren ezaugarriak eta beronen egoera euskal komunitatean. Oinarriak, corpusa eta diagnostikoa.
2. Euskalkiak eta estandarra ahozko hizkeraren funtzioetan: praktiken azterketa eta jarraibide batzuk sortzeko oinarriak.
3. Eguneroko hizkerarako adierazkortasun baliabideak hezkuntza arautuan lantzeko bideak eta formulak.
4. Aisialdi antolatuan eta hezkuntza ez-arautuan adierazkortasun baliabideak lantzeko bideak eta formulak.
5. Eguneroko hizkerarako adierazkortasun baliabideak hedabideetatik eta ingurune digitaletik sustatzeko bideak eta formulak.
6. Eguneroko hizkerarako adierazkortasun baliabideak lantzeko bestelako bideak.
7. Hitanoa lantzeko eta hedatzeko bideak eta formulak.

Lan bakarra aurkeztu da deialdi honetan:

Goizuetan noka berreskuratzen hasteko ikerketa-proiektua

Proposamenaren egilea: Oihana Lujanbio Begiristain

Proposamena irakurri eta aztertu ondoren, **zehaztutako ebaluazio-irizpideak aintzat hartuta, aurkeztutako lana saritzea erabaki du epaimahaiak.**